

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### ESTATUKO BURUZAGITZA

**10341** *Hutsen zuzenketa, honako lege honena: 2/2012 Legea, ekainaren 29koa, 2012rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.*

2012ko ekainaren 30eko Estatuko Aldizkari Ofizialaren 156. alean argitaratu zen ekainaren 29ko 2/2012 Legeak, 2012. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, akatsak zituela ikusirik, honako zuzenketa hauek egin behar dira:

128. orrialdean, hogeita hemeretzigarren xedapen gehigarriaren Bat ataleko hirugarren lerroan, hau dioen lekuan: «... Lege honen berrogeita seigarren xedapen gehigarrian...», hau esan behar du: «... Lege honen berrogeita bosgarren xedapen gehigarrian...».

184. orrialdean, amaierako hogeita batgarren xedapeneko Lau atalaren azken paragrafoan, hau dioen lekuan: «2.... zerbitzuak direla eta... 0,38 euro gehitu behar zaizkio irteten den bidaiari bakoitzeko», hau esan behar du: «2.... zerbitzuak direla eta... 0,380000 euro gehitu behar zaizkio irteten den bidaiari bakoitzeko».